

# Larraun araneko amazazpi arrietatik barrena, oiñez

POR S. GARMENDIA

«Mari-jaleak dira Errazkingoak.  
Zapata-orpo-makurrak, Albisukoak.  
Gezurrontzi zikiñak, Baraibarkoak.  
Sardiña-jantzaleak, Iribaskoak.  
Saskigille-kumeak dira Allikoak.  
Baba-txior-jaleak dira Aztizkoak.  
Beti enbotto dira Oderizkoak, enbotto-koxkor.  
Gona nabartzoakin or Madozkoak.  
Neskatxa beltzeranak or Mugirokoak.  
Oei dagozkienak or Arruitzkoak.  
Galtza-gorriak dira Aldazkoak (deabrutxoak).  
Gona-petral luzeak, Etxarrikoak.  
Neskatxa-luzituak, Lekunberrikoak.  
Bular-aundiak dira Uitzikoak.  
Beti amorez daude Gorritikoak.  
Beti-alargun dira Azpirozkoak.  
Lezaetan dago kaxkail-erria (jende koxkorra).  
Antxen akabatzen da kanta guzia.

Orra Larraungo amazazpi erriak, zein baiño zein jatorragoak. Naparroa zaar-  
rean... Aralarren babesean. Erri ixillak; pakea nun-nai, noizean bein ardien da  
axurien marraka gozoak ausia. Erri ok ezagutzen ez ditunak ez dezake esan  
Eukalerriaren biotza ezaguten duela. Izan-ere, erreri gutxi ditukezu auek bein  
euskaldunak. Orrexek bultzaturik goaz amazazpi erri otara oiñetakoak urratzera.

Nundik asiko-ta, jo zagus Lezaetara. Venta-berri baserritik zuzenduko ditugu  
gure oiñak. Andik ez urruti, bosten bat minutu barru ortxe-ortxe, dago Albiasu.  
Larraungo ttikiena; ez kaxkarrena, ez itxusiena. Lezaeta bera itxusiagoa dezute:  
dena zulo, arkaitz eta narru-gorri. Badu ala ere Lezaetak, etxe bat aundia, Venta-  
vieja deritzaiona. Aundi, zabal, untzak eta goroldioak paetak jana. Aspaldi batean  
ezagun xamarra zan etxe zaar aundi au. Etzan orduan oraingo automobilik. Zal-  
diak, mandoak eta gure astotxoak karreatzen zuten jendea... baita ere Napa-  
rroako ardo zaarra alde batetik bestera eramane. Venta-vieja ontan gelditzen ziran  
mandazaiñ da zaldizaiñak. Antxe gelditu. Su ondoan eskuak berotu, indarrak be-  
rritu, ankazabalik lo egin da biamonean berriro zaldigaiñean... Baiñan aurretik

bazuten zeregiñik! Aldapa aundia zetorkien: Azpiroz aldapa. Zaldi batek ezin zeramaken ainbeste: urdia jendez betea. Eta bai! Bat, bi, iruzpalau zaldi lotzen zizkioten gurdiari aldapari nekerik gabe gaina emateko.

Esanak esan, asi zagun gure martxa. Asi karreteran betik gora, eta kilometro-erdie egin ondoren, ezkerrean, bide zar bat topatuko degu. Segi oni eta Azpirotzen gera zuzenik eta bizkorrik. Berrogeiren bat minutu, ez geiago. Egia esan, zer ikusi aundirik eztago erri ontan, zerriak eta olloak ezik, baiñan Lezaeta baiño txukunagoa da eta batez ere ikuspegi obeak ditu. Elizaren ondoan ba-da karretera antzeko bide bat; segi bideari eta berrogeita amar minutun Gorritin gaude. Errira baiño len burnizko ate bat pasatuko degu Gorriti ta Azpirotzen muga-mugan dago ate burnizko. Erri polita. Aran txiki baten barrenean dago, Santa Barbara, Guratz eta Elostá tontorren itzalean. Iru ostatu ditu Gorritik. Zeiñ baiño zeñ! Onerkero zerbait nekatuxeak gaude-ta, amarretakoa egiteko toki aparta degu erri au.

Ba-dago karretera Gorrititik Uitzira. Uztagun alde batera karretera eta lotu gatzaizkion lengo bide zaarrari. Berrogei taamar minutun Uitzin gaude. Erri dotorea. Kale txukunak, etxe zabal-aundiak inun ez bezela. Bi ostatu ditu. «Maina» deritzona degu aukerakoena. Txuri batzu artzeko aitzakiz sartu-atera bat egin dezagun ostatu ontan, eta al izan ezker itz-aspertu bat egin dezagun Jose Olaetxea nagusiakin; oso ezaguna da gizon au, negozio arazoetan bete-betea da billena.

Uitzitik Lekunberrira; txakur errira. Bide zabala alde batera utz eta segi bidetxiarrari. Bidetxior onek karreterara garamazki berriro, Uitziko estazioa pasatu ordukoxe. Berriro bidetxior bat topatuko degu eta jarrai arri. Bidetxiarrak, Gipuzkoatik Iruñara dijoan karreterara aterako gaitu. Bertan degu Lekunberri. Uitzitik Lekunberrira ordubete exkax.

Lekunberri. ¡Ori erria! Larraun guziaren buru. Eztezue Larraun guzian erri au: beziñ ezagunik, ez dotoreagorik. Denetik dago: hotel, ostatu, ikuspegi zoragarri, udazaleen etxe eta edonungo urietati bildu oi diran famili arpegi beltz ta nekatu asko. Eguerdia da. Orain da gorputza indarberritzeko garaia eta inun izatekotan erri ontan dago toki bikaiñik oparo bazkaltzeko. Ayestaran hotela, ezta toki txarra jateko: ugari ta txukun ematen dute.

Eztago egoterik, eztago luzatzerik bazkalondoan. Karretera txiki bati lotu eta bat batean Etxarrin gaude. Emen ere badago baserri aundi ta zabalik, alazankoa! ¡Etxarritik Aldatz, ipurdi latz! Bide ona degu tartean; ogeita bost minutu egin-da Aldatzen gaude. Erri sarreran moja konbentu ixill oietako bat ikus diteke. Egin berria ematen du; ala du itxura. Badira iruzpalau etxe dotore: Loperena, Juanmartiñena, Mugi... Kanposantu aurre-aurrean berriz, romaniko ate eder bat; elizatik ekarria noski.

Aldatzik urbillena Arruiz degu. Tartean berebiziko gaztainadia. Aiek gaztain enborrak! Zoritzarrez hurrera datoz pixkana-pixkana, aizkolariak ezpaudituzte pakean uzten. Toki zikiña ta zingira dator qeroxeago. Elbientzat aparta. Belardi ezeak urren. Berrogei minutun Arruizen gaude. Erri paketsu ta ederra. Ainbesteko ots ta zalaparta atera duen Arruizko txikia, korrikalaria, emengoa dezute.

Arruiz-tik karreterara atera-ta, berealaxen gera Venta de Arruizen. Ementxen bizi da, ondo-ondoan Periko errementaria. Errementari, eiztari eta arrantzale famatu. Karretera jenerala alderik-alde pasa eta arizti bikaiñ batetik barrena ogei

minutun Mugiron gaude. Badira erri ontan baserri ikusgarriak: Arotzanea, Apezenea, Txantonea... Txantonea onek badu mandio ikaragarri aundia. Txistua ta danboliña ondoan izan ezkeru egin diteke mandio artan euskal erromeria, ain da ta zabal ta aundia. Jo zagun Lekunberrira eta onezkero aspertuxeak ditugu gure oiñok eta neurtu zagun oia den patxadarik ederrenean.

Biamonean, ogei minutun Allin gaude; ordu erdi barrun Astiz-en... beste onenbeste ta Oderit-tzen. Jo aurrera eta mendien bestaldeti Madotz topatuko degu. Karreteraz egin diteke au dena. Itzuli gaitezen Allira. Baba beltzak gustatuko litzaikenik balitz eros bitza Allin da Astitzen, oso goxoak baitira eta iñungo onenei ezte batere zor gainera. Ar zagun bidetxiorra Allin, eta beerantz goazela, argi zentral batera eramango gaitu. Ekin berriro goi aldera eta ordu laurden batean ortxe-ortxe, Iribas-en gaude. Iribastik Baraibarre-ra ogeiren bat minutu, ez geiago. Atzean utzi ditugun erri oiek baiño azixeagoa degu Baraibar. Pelota leku bikaiña du, eta gutxi ditezke Naparroan ainbeste kamioi dituken erririk; izan ere, erribo semeak, askok eta askok, trasportera jo baidute.

Baraibarren baiñon leenago. Sei etxe besterik ez ditu Albiasuk. Errira baiño len, bizkarrez-bizkar goazela, ikuspegi aparta ederra dago. Aralarko malloak gain-gaiñean; Errazkin, Azkarate eta, bean. Egin diteke bizkar ontan hotel apaiñik eta ederrik, ikuspegi zoragarriekin, turistentzat...!

Oso goi dago Albiasu. Seireun bat metro bai itxasoaren gaineti. Utz ditzagun tontor ok eta jo zagun beera. Lendabizi jetxi, eta ez apika bide onetik; igo gaitezen berriro pixka bat eta laxter ikusiko degu Errazkin. Mutillek! Auxe erri txukuna! Zementuzko kaleak... baserri bakoitzera zementuzko bide-pausoak. Ezagun da bai erri ontako indianoak Argentina ta Mexiko-ko lurraldeetan gizenik eta mardulik bizi dirana!

Bukatu da gure txangoa. Errazkin: amazazpigarren erria. Eupada bat bota eta jetxi gaitezen karreteraz Lezaetara. Utzi genduen bezelaxe dago: illun, zokoan, malkarraren ipurdian lotsati. Orduak aurrera doaz ta... gure gorputzak ere atsedan pixka bat merezi du noski. Maindire txuriak...! Bai, Larraungo amazazpi erri ok kaxkoan daramazkigula, sar gaitezen maindire txurien artean. Neke pixkaren bat badaramake gure gorputzak, baiñan, ohea du neke ori eta ez tabernazuloko pattarraren ondoan artzen aal duen berdoztasuna!!!